


ZARR


BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
II n. ZENBAKIA

BAGILLA
— 1978 —



IGORRE'KO IRUARRIZAGA'TAR LUIS

- Abes-batzen zuzendari.
- Eresi-egille ta barritzaille.
- Abeslarien ezitzaille.
- Organularien irakasle.
- Eresi-aldizkariaren zuzendari.
- Andra Maria'ren Biotz-seme mixionari.



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU

ERESIA IRUARRIZAGA

ERESI-ZALE.—Zenbaki au gure ereslari edo musika-egillerik aundienetariko baten omenez egiten dau ZER aldizkariak. Egoki da ba, lenengo ta bein, gure ereslari buruz zerbait agertzea.

Ez da ixilleko gauzea mundu zabalean, gure Erria esesi-zalea dala. Erriaren barru-barrutik sortzen jakun jokera bat dogu ori eta orregaitik esaten dabe inguruko gizakiak, inn euskaldun alkartzen diranean, abes-batza sortzen dabela.

Non agertzen dau gure Erriak esesi-zaletasun au?

Labur-labur: Artzaiñak basoan albokari dira, jaietan gazteak eta elduak txistulari, Eleizetan erria abeslari, maietan maikideak kantari, gudetan gudariak irrintzilari, umeak eskean diarduenean koplalari, euskal-oikune edo «rito» zarretan, Sari Juanetan esaterako, saltari eta bertsolariak mai-gaineetan doiñulari.

Ez dogu aiztu bearko aspaldiko euskal jaietan asko agertzen dan esesi ariña, ain ona izan ez ba'da be, here esangurea izan dau.

* * *

ERA BI.—Gure esesia aztertu nai dauan edonork era bitako esesia ikusiko dau laster: Bata esesi pozgarria, zortzikoa bide dala eta ituna bestea; bata jauzilaria eta barrukoia, lirikoa, ituna, ameslaria, maitemindua, abertzalea, jainkozalea bestea.

Era bi oneik ondo berezitzen ditu euskaldunak eta ba daki noz zein erabili. Biek nastatutea, buru-arinkeria eta parkatu-eziñeko gauzea izaten da. Era baxotxa here lekuan egokia da.

* * *

OSPETSUAK.—Eresi batzuk, euren aunditasuna ta sakontasuna gogoangarriak diralako ta aldi guztietarako balioko lez ikusten diralako, illezkorrak dira: Orrelakoa esesi errikoa, erritik sortua, orrelakoa euskal-operea tankera lez etorria izan arren ederto geuganatua, orrelakoa ereslari trebeak egin dabena, onein artean gaur omentzen dogun Iruarrizaga'rena.

Ba dira beste esesi-mota asko, egunean ontzat artuak izan arren eta erriaren txaloak irabazi arren, illezkorrak ez diranak. Gaurko plazetan, geroago ta gitxiago egia esan, ainbeste txalo entzunten danean, ez da izaten esesiaren ontasunagaitik, izkiaren edo letrearen esangureagaitik baiño. Orrelan eresilari lez artu doguz abertzale baiño besterik izan ez diranak.

* * *

IRUARRIZAGA.—Erritar asko ta asko izan doguz eresilari onak eta ospetsuak. Batzuk ospe aundia izan dabe eta erriak ondo ezagutzen ditu, esaterako Guridi, Usandizaga eta olakoak.

Baiña beste batzuk, onak izan arren, zergaitik edo agaitik, ixiltasunean ostenduta ikusten doguz.

Oneitariko bat dogu gure Iruarrizaga, arratiarra, Igorre'koa, Euskalerrian baiño erbestean ezagunagoa bear ba'da. Baiña ba dauka gure artean be ospea...

Iruarrizaga'ren esesi guztiak dauka euskaltasun sakona, bigarren erako euskaltasuna eta bigarren eran be jaikozaleen euskaltasuna.

Gurutzeko Jon deunak Garzilaso'ren irudi ederrak Jainko-bidean jarri zituan lez, Iruarrizaga'k euskal barrua ta gure esesi mindua Jainko-bidean jarri dau. Eta iturri orretatik datorkon esesia, eder-ederra da.

EDO, ALA, NAI (ZEIN)

IRURAK, LOKARRI-ITZAK

Irurok lokarri-itzak dira.
 Irurok gaztelera «o» lokarri-itzari dagokioz.
 Ez, baiña era beratan. Esangura bestelakoa dabe-ta.
 Bakotzak bere barrutia dauko.
 Ezin, beraz, zein bata zein bestea zein irugarrena norberaren gogara erabilli.
 Ta emen be naastea daukagu idazleen artean.
 Batzuek *edo* erabilli bearrean, *ala* ta *nai* (beste euskalkietako *nai*) erabilliko dautsue.
 Batzuetan *edo* izango da artu bearrekoa, beste batzuetan *ala*, eta beste batzuetan *nai* edo *zein*.
Edo noz, *ala* noz eta *nai* (*zein*) noz? Auxe jakinkizun eta azterkizun. Banan-banan ikusiko dogu.

* *
* *

EDO

Gauza bat edo bestea aukeratzea bardin danean, orduantxe erabilli bear da *edo* lokarri-itzia.
 Argibidez:
 Zuria *edo* baltza (bietatik bat ekarri egidazu).
 Irakurri *edo* idatzi egin bear dozu (bietatik bat).
 Onek *edo* arek egingo dau (bietatik batek).
 Aita *edo* ama etorriko da (bata edo bestea, bietatik bat).
 Gaur arratsaldean *edo* biar goizean elduko dira (batean edo bestean).
 Emen *edo* an egingo dogu etxea (bietatik baten).
 Lau *edo* bost arrautza bear dodaz.
Edo oraintxe *edo* *inoz* ez dogu egingo.

* *
* *

ALA

Gauza bat edo bestea aukeratu bearra dagoanean erabiltzen da. Adibidez:

Itaunetan

Zuria *ala* baltza?
 Irakurri *ala* idatzi egingo dogu?
 Gaur *ala* biar etorriko da?
 Aita *ala* ama joango da?
 Biar Gasteiz'a *ala* Bilbo'ra joango gara?
 Emen *ala* an egingo dogu etxea?

Zalantzatan

Etxea emen *ala* an egingo dogun ez dakit.
 Biar *ala* etzi etorriko diran baneki!
 Irurogei *ala* irurogeitabi urte daukazan ez daki inok.
 Osagille *ala* lege-gizon izango dan ezin ebatzi.
 Etxaldea semcari *ala* alabeari emon ez dakiela ci dagoz gurasoak.

Itaunetan *ala* erabilli arren, erantzunetan *edo* izango da. Ikusi:

Itaunak	Erantzunak
Etxea an <i>ala</i> emen egingo dogu?	An <i>edo</i> emen (batean edo bestean).
Zuria <i>ala</i> baltza gura dozu?	Zuria <i>edo</i> baltza (bata edo bestea).
Gaur <i>ala</i> biar etorriko da?	Gaur <i>edo</i> biar (bietatik baten).
Amar <i>ala</i> amabi urte ete daukaz!	Amar <i>edo</i> amabi (bata edo bestea).

Erantzuna zalantzazkoa izan ezker, baiña, *ala* bear da. Anelatan:

Itaunak	Erantzunak
Nun da aita? Etxean <i>ala</i> mendian?	Etxean <i>ala</i> mendian dan ez dakit.
Zuria <i>ala</i> baltza gura etc dau?	Zuria <i>ala</i> baltza gura dauan berari itandu.
Gaur <i>ala</i> biar etorriko da osabea?	Gaur <i>ala</i> biar etorriko danik ez dau esan.
Musean <i>ala</i> tutean egingo dogu?	Musean <i>ala</i> tutean egingo dogun guztion artean ebatzi bear.

NAI eta ZEIN

A' ai (beste euskalkietako *nai*, esan danez) eta *zein*, biak erabiltzen dira bizkaieraz, eta biak esangura beratan: gaztelera o... o... *sea... sea...*, *bien...*, *bien...*, *ora...*, *ora*.
 Argibidez:

Nai zuria nai baltza edan, niretzat bardin bardin da kaltegarri.
 Zein emen zein an egin etxea, egundo ez naz bertan bizi izango.
 Zein irakurri zein idatzi, bardin dozu.
 Solo onetan zein garia zein artoa erein, ez da ezer artuko.
 Zein gaur etorri zein biar etorri, nik ez dautsats berbarik egingo.
 Zein lo egin zein lan egin, i beti kirten.
 Zein oiñetakook jantzi zein barriagoak jantzi, beti izango az arrote aundi bat.
 Zein oiñez zein autoz joan, ezin aiteke sasoirako eldu.
 «Zein batera zein bestera, dendatu bear gara, erdera usaiñak itxirik, nekezari euskaldun utsak irakatsi deuskuen gisan berba egiteko garbiro» (Mogel, Peru Abarka, 198-24).

* *
* *

AZKUE'K IRAKATSIA

Azkue maixu aundiaren irakatsiak emen aitatztea argimole izango dala uste dot:
A la «denota interrogation expresa o tatua...: *Eztakit zer egin: artu ala utzi* no se que hacer: tomar o dejarlo. Cuando no hay reminiscencia de interrogacion, la misma frase decimos con *nai*, según la locucion popular *artu nai itxi, kunplianentu gitxi*».

«La conjuncion *edo* solo emplea Arana-Goiri para casos de igualdad: 1.º, al traducir neologismos. Biztoki *edo* mundua. Lege *edo* lagijak... kolore *edo* margua. 2.º, al presentar sinonimos: *almcn edo* eskubidea poder o facultad».

«Los disyuntivos castellanos *ora* esto *ora* lo otro, *bien* esto *bien* lo otro, *ya* esto *ya* lo otro, *sea* esto *sea* lo otro se oyen poco entre vascos que aún habitualmente hablan el romance, y recurren de ordinario a «o».

De aqui lo que se dice en el Diccionario al tratar de *edo*: se abusa de ol haciendole ocupar el puesto de *ala*, *zein*, *nai*, *nai*. *Gaur edo* biar etorriko da «vendra hoy o mañana» es buena locucion. Esto mismo, si se pregunta, debe decirse asi: *Gaur ala* biar etorriko da?

Cuando es disyuntiva, debe decirse: *zein* gaur *zein* biar, *bardin* da, «u hoy o mañana, es lo mismo».

Hay, sin embargo, casos en que es difícil resolver si *edo* esta dentro o fuera de su lugar.

Edo es «o» de igualdad, pero no de igualdad absoluta; que si lo fuera, no podriamos tal vez hacer uso de el no siendo en ecuaciones materiales: *zazpi edo* lau ta iru...

El pueblo, como correspondiente a la locucion «tengo dos o tres» dice *bi edo* iru...»

«He aqui algunas locuciones puras cuyo *edo* tampoco significa igualdad: *zer edo* zer, *nor edo* nor, *noz edo* noz, *bat edo* beste, *zetan edo* atan...» (Morfología Vasca, Bilbo, 1925, 485 eta 486 or).

EUSKERA GAUZARIK NAGUSIENA



TXAPELKETEA.—Joan dan orrillaren 14'an eta Astoria zinetokian jaialdi bat ospatu zan, **EUSKERA GAUZARIK NAGUSIENA»** izena ebala.

Jaialdi au, idaz-lanen txapalketa baten amaia izan zan eta umeentzako antolaturik egoan.

Baiña zer dago jai-aldi onen atzean?

Lan asko: Idaz-lanen zuzenketak, irratira ta izparringietara joan-etorriak, sariak billatzea... berba baten esanda, gabetako lo-galtze asko.

Txapelketa onen joan-etorriak zeozer ikutu nabe, baiña nik baiño obeto, eurak, antolatzailleak azalduko dabe.

* * *

ASMAKETEA.—**ZER:** Zelan asmatu zenduen leiaketa au?

ANTOLATZAILLEAK: Asieran iru edo lau gurasoren asmoa zan. Gero, asmo ori Deustuko ikastoleari esan eta ostean, eta Izkuntza Eskola Ofizialaren laguntasunaz, lanean asi giñan. Araudia aurkeztu, zabalkundea egin, sariak lortu eta orrelan urten genduan mundura.

ZER: Zelako laguntzaz asi ziñeen?

ANT.: Laguntza barik asi giñala esan leike. Guraso batzuk batu giñan eta taldeak egin ondoren, lana asi zan: Batzuk sariak lortzea, beste batzuk zabalkundea, beste batzuk dirua...

* * *

UMEEN LAN ASKO.—**Z.:** Ainbeste lan etorriko zanik uste zenduen?

A.: Ez. Ezelan be ez. **DEIA**'k antolatu eban leiaketa kontuan artuta eta 200 baiño gitxiago joan zirala jakinda, ez genduan uste 500'etik gora igaroko ziranik.

Z.: Zuen itxaropenak bean geratze onek, arazo barriak sortuko eutzuezan. Zelan konpondu ziñeen?

A.: Bai. Gure asmakizuna txiki geratu zan eta bigarren atoleketa bat egitera beartu giduzan. Umeen erantzuna ikusirik, geuk be erantzun bear gendun, batez be sari geiago aurkituaz eta leiaketeari indar geiago emonaz.

* * *

LAGUNTZAK.—**Z.:** Sariak zelan lortu dozuez?

A.: Sariak lortzeko ara ta ona jo bear izan dogu, leku askotara.

Bankuetatik be laguntza aundia euki dogu. Lenengo prest egon zana Lankide-Aurrezkoa izan zan, baiña laguntzarik aundiena «Caja de Ahorros Municipal» ek emon dau. Onek Retolaza'tar José Antonio'ren bidez, leiaketa onetan parte artu daben ume guztiai KILI-KILI aldizkariaren urte bateko arpidetza ordaindu dautse. Bizkai'ko Aurrezki Kutxak be zeozer emon dau, baiña oso gotxi.

Z.: Ofizial-erako laguntzarik izan dezue?

A.: Ezetz esan geinke. Bear ba'da, Izkuntza-Eskolakoak emon dauskuena. Asieratik, Ikastegi onetako Euskerearen arlokoak edozetarako laguntzeko prestau ziran eta, egia esateko, bertatik urten dau epai-maiak. Or izan dira Belen, Eguzki, Lasa, Zarate eta azkenean Uriarte ta Irigoyen.

Jakintza-ministeritza'ra be jo dogu eta 100 euskal-liburu artu doguz andik, diruz itzulita eta kontu-aurre guztiaren % 2 edo 3. Eusko Kontzeillu Orokorrera ta Euskaltzaindi'ra be gutunak bialdu doguz umeen erantzuna ikusi dagien, baiña ez dogu erantzunik artu, ez dakigu astirik ezagaitik ala beste arazo batzukaitik izan dan ala ain interesgarri ikusi ez daben.

* * *

EUSKERA

LANAK.—Z.: Lan oneik nondik bialdu dabez?

A.: Leku guztietatik. Naizta Bizkai'rako baiño izan ez, beste leku batzutatik be etorri dira.

Z.: Zelakoak izan dira lanak?

A.: Iru eratakoak izan dirala esan lei: Batzuk onak, beste batzuk ez ain onak eta beste talde bat Espiritu Santuaren laguntza izan dabenakaz egin leike.

Z.: Gauza gogoangarririk aurkitu dozue?

A.: Dana ondo aztertu eta ikusi ondoren, iru gauza esan bear dira:

—Euskal-telebista bat bearrezkoa dala.

«Jakintsu» batzuk baztarten daben euskerea bizirik dagoala eta ikastola batzutan gogorkeriz erabilten dan arren, oraindik baztertuaren azpitik gelditzen dala.

—Neskak mutillak baiño geiago dirala Ian onetan.

* * *

NONDIK ERETXI ORREIK.—Z.: Zelan aldu zaree ondoren orreitara?

A.: Lan oneik izanpetuta etorri dira eta telebistako Huch, Starsky, Mazinger sarritan agertu dira. Ogeitan bakoitza gitxi gorabera.

Or ikusten dogu nora arte sartuta dagon erdel telebista.

Ostera, euskal izenak, naiz ta asko izan, gitxi idatzi dabez.

—Irabazle biak ez dira ikastola-umeak, ez doaz iñongo ikastolara.

Erri-izkuntza darabile eta landua izan ez arren, izugarrizko gozotasun eta indarra adierazten dabe.

Orduan argi dago emen be, ikastolako euskerea, euskera batua eta liburuetakoko euskerea erri-euskeran oiñarritu bear dirala edo ez daukela zer-egitiñik.

—Neskak geiago dirala ikusteko, irabazleen zerrendak begiratzea da naikoa.

* * *

AURRERAKO ASMOAK.—Z.: Beste baterako asmorik ba dago?

A.: Bai. Urrengoa Euzkadi guztirako egiteko asmoa dago, bai Iparralderako ta bai Egoaldereko. Orretarako mai-inguru bat egin bear da, talde batzuk egin. Gu geure aldetik gertu gagoz gure laguntza ta ikasiak eskeintzeko.

Oraindik asi gara begirada bat emoten, baiña idaztea bakarrik ez dala kultura osoa kontuan izan bear da, doiñu edo musika-aldetik be ba leiteke zerbait egitea.

Askenez eskerrak emon gura dautseguz Deustu'ko gazte batzui. Eurak gertu egon dira edozetariko lanean laguntzeko. IKASTALDE'ko gasteak dira oneik.

* * *

IRABAZLEAK.—Oneik izan dira, gitxi gorabera, antolatzaileen arazoak eta joan-etorriak, aundiak benetan. Baiña eurak borondate aundiaz eta biotz euskaldunetz beste sakakada bat emon dautsoe euskereari.

Gure aldetik ez besterik geiago, irabazleak nortzuk izan dizan gogoratu baiño.



EUSKERA GAUZARIK NAGUSIENA TXAPELKETAKO IRABAZLEAK

«A» TALDEKOAK:

- ⁰ Biotza Fradua (Bermio'ko Jesus'en Biotza-ren ikastetxekoa).
- 2n. Matxalen Olarra (Karmelo Ikastolakoa).
- 3n. Natalia Iturbe (San Fidel Gernika'ko Ikastetxekoa).

«B» TALDEKOAK:

- ⁰ Kristina Sarduy Gainza (San Fidel Gernika'ko Ikastetxekoa).
- 2n. Kariñe Lasa (Karmelo Ikastolakoa).
- 3n. Jasone Aretxabaleta («Vera Cruz» Markiña'ko ikastetxekoa).

ELIZ MUTIL SIMARROIE

Atxiñe baten, erri txikitxu baten, bizi zan mutikobat, Mikel zan beran izena eta ezan zan beran parroko eliz mutil edo monagilloa.

Esakera bat dakoya erdaldunek diñona: «si quieres tener hijo pillo metele a monagillo» eta ori esakeriori egiye esanlei, ze gure upiñeko mutille, elemento gogorra zan.

Beste mutil lagun bi okiebazan eta irurek barrabaskeiak etxeko batzenien elizan.

Egun baten esan eutson parrokueri Mikelek: Don Iñazio, onantz natorrela, topadot Leandra, etxe zurikue ariñ ariñke datorrela, eta esan dost, esateko berorreri, ariñ jueteko, amuma dakoiela oyen txarto, eta konfesa gudauela ta.

Parrokuek artu sauen olisiñue emotekuc gauzak baespadan, eta joanzan ariñ etxe zurirantz.

Artitan Mikel eta beran mutil lagunak preparazien euren bariabaskeie andijena etxeko.

Iru pilluek yakizauien non gordeten dauen parrokuek mezie emoteko ardaue, atara armayotik kankilloie eta txurrust batac eta txurrust bestiek, kankilloieri bajada ederra emontzoi, baye tangarik esanelez okiñ, kankilloien musturretik edaten sauien.

Alako baten plaust! ardaue txorrotada bat beinganera.

Zelako zipizapia armazan ba!

Traporik esauielez okin sikatuteko, parrokuen maiye ganien egonzien papelak eta dokumentu guztiyekaz batun zauien ardaue guztiya eta gero kankilloien lotuden ardaue apurreri emontsoien pasadie.

Zelako sastarra atrapasauien ba.

Irurak lepotik agarra alkarrereri eta an yuensien kaleikale.

Kalian gora, kalia bera, kalia gora zezena! kantaten.

Alako baten, agertutenda, parroko Jauna puske! izerdixen, sartutenda sakristarijera eta ikusisauenien ango destrosue... zelako irrintziye botasauen.

Mikelen aita, jakinsauenien zer egin-dauen beran seme koskorak
haz emontsozen atzeko mandan. ene! ede-

Mikel gisajue ezin yesarrizan aste guz-tien.

«VICENTA»

BIOTZA FRADUA (9 urte)

«Euskerea gauzarik nagusiena» txapelketan
lenengo saria (A taldean)

EUSKAREA IKASTEKO, ENTZUN ETA ULERTU

XABIER PEÑA'REN IRAKASPENAI
JARRAITUZ.

KASETAK DAUKAGUZ SALGAI.

ESKATU

EUSKERAZALEAK ALKARTEARI

(Colon de Larreategui, 14-2.º)

EUSKEREA

EUSKEREA MUNDUAN



**«Neure maitia nundikoa da,
noz ta nogandik sortua;
jakin-nai onek damost aspaldi
buru-austerik naikua
bakarrik dakit dala antxiñakoa
garbietenarikoa
euskal-erria baita beretzat
jaunak emutsan lekua».**

| *Kepa ENBEITA'k*



Gaur basotik ibilli naiz, eta gauza ikusgarri bat topatu dot. Ancira zar bat, Jesukristo baiño ariñago jaio nikoa. Euskera munduan berbetan asi zanean andra au jaio zan, Mari Pepa bere izena.

Bere aurpegian, barre garbi bat sortzen da.

Bere onduan txabola zar bat dago, eta onen atzian piñudi aundi bat. Sartzeko esaten daust, eta nik berari kasu egiten; sartu egiten naiz. Txabola, kanpotik txarto dago, baiña barrutik dana argi ta garbi. Nik jarri egin eta gero, Mari Pepa'k, denporea galdu barik. itaunak egiten asten da.

—Nondik zatoz?

Gerrikatik.

—Eta onarte eldu zara?-esaten daust, Gazteizko mendietan nagolako, eta berak cz daki bere-billik dagonik.

Bai-erantzun dautsat.

Zelan dago euskera munduan?

Itaun au entzun eta gero, pozik jarten naiz.

—Ez dakizu! Orain, Euskal-Erri guztian euskeraz egiten da eta ondo gaiñera.

—Benetan?

—Benetan. Sasoi baten, euskeraz egiten lotzatzen zirenak, gaur, oso arro euskeraz egiten dabe.

Sasoi baten, mututurik ziran radio, telebista eta abar, gaur euskeraz egiten dabe, eta sasoi baten mendian baztertuta zegoan euskerea, errietako ikastoletara jabatu da, eta gurasoak, poz-pozik bialtzen ditue euren semeak, ikastola orretara.

Beste orrietako gente asko etorten da gure jai, monumentu ta abar ikustera. Kursoa amaitu-keran, beste errietako mutillak eta neskak, Gernikako arbola ikusten etorten dira. Egun baten nere etxe aurrean amar autobus egon ziran. Euskerea garbi ibilli zan erdelkeria sartuarte, orain au joanda gero, asko garbitu cia.

Txori bat etorri da, bere egoan ura daroa. Su aundi bat amatetan doa. Su ori erderaz egiteko gogo da. Zori txarrez kontzentzi batzutan dago oraindiño. Eta txori orrek, ekin eta ekin, sua amata clau. Baiña au edertasuna, Fuma bekoitzetik su barriak, sortu dira, baiña orain su orrek, euskera egiteko gogoak dira.

Mari Pepak ez ditu ulertzen dirautzedazen gauza asko, ez daki zer dan berebilla, radio ta abar.

—Nik ere nai nuke mundu ori ikusi-esaten daust-eta batez be euskera zelan dabillen.

—Etorri neugaz nai badazu.

Etxera etorri garenean, itzartu egin naiz, amesetan egin ciot. Ez dan ardura, neretzako, oinciño, Mari Pepa bizi da, eta bere billa joango naiz, ez daust ardura norarte.

Urteak pasatu dira, Euskal Erriko leku guztietatik ibi naiz, emetik oira; menditik, hondartzara, piñuditik baserrire; eta abar, baiña ez dot Mari Pepa topatu. Ostera, amesetan egiten dotenean, bere aurpegia, garbia, ikusten dot.

Mari Pepa bizi da!

Berari poz egiteko, euskerea, dagon baiño geiago berba deiten, guk ere, euzkeraz, egingo dogu, eta munduan zear gabiltzanean, ez dakianari irakatsi.

Agur!

KANPOKO ETXE. KRISTINA SARDUY (11 urte)

«Euskerea gauzarik nagusiena» txapelketan lenengo saria (B taldean)

IRUARRIZAGA'TAR LUIS AITA

BIZITZEA.—Geure erriko gizon ospetsuak ez doguz aitzu bear. Eurak dira gure izen onaren oiñarri.

Gai askotan izan ditugu gizon ospetsuak: idazleak, izlariak, erlariak, gudariak, billatzaileak eta abar.

Gaur gure musikarari edo eresilari ospatsu bat gogoratu bear dogu: Aita Iruarrizaga. Aurten opatzen dogu bera il zanetik 50'garren urtea eta 25'garrena gogoangarria izan zan lez edo geiago gogoangarria izan bear da 50'garrena be.

Igorre'n (Arratia'n) jaio zan Iruarrizaga, 1891'garren urtean eta 1928'garrenean il, 37 urtekoa zala. 1916'an esan eban lenengo mezea, ordurako Maria'ren Biotzgarbiko Misiolarien arteko lekaidea zala. Zazpi neba-arreba ziran, bost fraile.

Meza barria esan eta laster Madrid'era joan zan eta bertan izan zan organulari ospetsua il arte.

TREBETASUNAK.—Esana dan lez, here trebetasun aundi bat organulari edo organu-jotzaile izatea zan eta eresi-zaleak bere eleizara joaten ziran, ugari joan be, bere trebetasun ori noraiñokoa zan asmatzeko.

Abeslaria be ona zan eta bere «baritono» abots ederra gozatsu entzuten eben arlo onetan aitua ziranak.

Baiña ospe illezkorra emon dautsan trebetasuna, eresi-egille izatea cia. Ingalaterra'n, musikalaririk onenakaz artu-emonetan izan zan, Westminster'en be organu-ekiñaldi ederra emon eban; beneditar eresilari ospetsuen ikasle izan zan Montserrat'en, Besalu'n, Silos'en eta Solesmes'en eresi gregoriotarraren doiñu gozoak euren gozotasun guztian artzeko.

Arlo onetan idazlea be ba'zan eta berak irasi ta zuzendu eban «Tesoro Sacro Musical» izena daroan aldizkaria Madrid'en eta El Escorial'en musikalarien maixu izan zan.

* * *

ZELAKOA ZAN.—Sendi, famili, onekoa zan gure Iruarrizaga. Berak esaten ebana gogoratu: «Nire gurasoak bai ba ziralala onak!»

Eta bera be izakeraz olakoa zan: gizon ona, maitekorra ta maitagarria.



Besteen nekeak beti berak eroateko gizona.

Guztien otsein izateko gertu egoan gizona.

Eta ontasun aundiaren barruan, zuzentasuna zan bere bidea, ez alde batera ez bestera ezergaitik makurtu barik. Ba ekian bere bidea zein zan eta ortik jarraitu eban, eresilariaren eta lekaidearen bidetik.

Maitetasun bi eukazan bere biotzean ondo oiñarrituta: Andra Mariaganako eta Altarako Sakramentuaganako maitetasuna. Ori agertzen da bere abestietan be.

Erri-zalea zan: «Musikea egiten dodanean, Igorre neure erriko mendietan nagola esan nei» idatzi eban.

*

BERE ERESIA.—Bere eresia edo musikearen izakerak gogoratzekoan, lenengo euskaltasuna ikusiko dogu: eresi orren izakerea ta iturria Euskalerriko izakerea ta eresia dira. Bere Misa Papolis, esaterako, Uso Zuria'ren dolman oiñarritua cia. Maite zituan gure abestiak.

Izatez klasiku-zalea zan eta XVI'garren gizaizaldiko eresia zan bere eresirik gurena, Victoria ordukoa, eta bere denporako Goikoetxea aramaiotarra eredu lez artuta.

Bide barriak urratzen zalea zan arlo orretan, baiña opera-tankerako eresia eleizan entzuteak asko minduten eban.

Gura musikalaricn artean punterengo bat dogu ba Iruarrizaga.

IRUARRIZAGA 'TAR LUIS † 1928)



Errekakoetxe, Iruarrizaga'reu jaiotetxea.

50 URTE.—Aurten beteten dira 50 urte Euskalerrriak izan dauan musikalari edo eresilaririk onenatariko bat il zala. Arratia'n dagon Igorre erritxuan jaioa bera.

Berrogei ta amargarren urte au gizon ospetsu oneri omenaldia egiteko urte ego-
kia dala uste dogu eta omenaldi ori itxaroten gagoz.

Orain 25 urte omenaldi ederra egin jakon bere *errian eta orduko* zeaztasunak gogoratu dagiguzan, beste zenbaki baten aurtent egingo danaren barriak emoteko ustez.

* * *

EGUN AUNDI BAT.—Maiatatzaren ama-
laua zan, 1953'garren urtean.

Goiz aretan Igorre'ko erria ederto apain-
duta agertu zan, gizon aundien etorrerea
itxaroten, orduan oituten zan aunditasunaz
Aita Iruarrizaga'ren 25'garren urtea ospa-
tzeko.

* * *

MEZEA.—Goizeko amarretan zan ome-
naldiaren asierea, parrokan meza santua
egiñaz.

Dana gertu: koruan 90 abeslari Iruarri-
zaga'ren mezarik ospetsuena abesteko, or-
ganuan jarrita Arana'tar Modesto organula-
ririk ezagunena, bere anai frailleak eta etxe-
ko guztiak... *Ordu-orduan egin* eban bere
sarrerea, Bilbo'ko Gotzain zan Casimiro
Morcillo'k eta beronegaz batera orduan Gaz-
teizen Gotzain zan eta gaur Sevilla'n Karde-
nal dan Bueno Monreal, gero agintariak...

Aundikiro ta ederto abestu zan mezea,
Sagarminaga'tar Anjel, Igorre'ko seme abade
jatorra emoilie zala.

Artabe'tar Juan Migel josulaguna izan
zan izlari.

* * *

JAIOTETXEAN.—Meza-ostean aureskua
29 txistulariren doiñuari jarraituz.

Iruarrizaga'ren gomutaki lez, oroitarrria
agertu zan eta geiago barik, zuzen omen-



Artea'ko abadegai abeslariak.

duaren jaiotetxe dan ERREKAKOETXE'ra joan ziran guztiak.

San Migel baseleizearen barrenean aukitzen da baserri eder au.

Bueno Monreal Gazteiz'ko gotzaiñak egin eban en lenengo berbaldia, Iruarizaga Madrid'en bere irakasle izana gogoratuez eta begien aurrean ikusten eban ikuspegi ederra aitatuaz.

Urrengo, Lazkano'tar Agustin aitak beste itzaldi bat, Maria'ren Biotz garbiko semeen izenean. Lekaide oneitarikoak dira Iruarizaga'tarrak.

Eta ekiñaldi au amaitzeko, agintarien izenean Hilario Bilbao jaunak.

* * *

BAZKARIA.—Olakoetan izaten dan lez, ezin itzi egin barik eta emen aitatu barik, eguerdiko bazkaria, etxeakoak alde batetik eta etorritako gizon ezagunak bestetik.

Egunari dagokion poztasuna eta urteetan alkar ikusi barik bizi izan diranen alaitasuna agertzeko, ondo etorten da maian egiten dan egotaldi au.

Ez zan larregi luzatu bazkal-osteko egotaldia. Arratsaldean eleizan egoan omenaldiaren beste ekiñaldi bat.

* * *

ERESI-ALDIA.—Arratsaldeko bostetarako erritarrak eta etorriak eleizan egozan alkartuta.

An, lenengo, eleizkizuna omenduaren abestirik ederrenak abestuez.

Latiñez abesten zan orduan eleizan dana, baiña benetan aitzu eziñeko abesti edarrak

ziran areek. Agertuko al dira gaur gure izkuntzan alako abesti ederrak eta ordukoen antzeko abeslari entzungarriak.

Eleizkizunaren ondoren eresi-aldia izan zan eleizan bertan: 90 abotsek osotzen eban abes-batza, aita Manzarraga zuzendari zala.

Bitartean Anjel Sagarminaga'k, bere umetako lagun izan eban Iruarizaga'ren omenez berbaldia egin eban.

Sagarminaga gizon gogoangarria zan eta gitxi-asko ezagutu genduanok ez dogu sekula aitzuko. Arratiaz ospetsuen artean bere lekua izango dau onek be.

Eresi-aldi onetan abeslari-talde bi izan ziran aitzu bear ez diranak: Artea'ko abadegaien etxekoa, Etxebarria'tar Anjel zuzendari zala eta sakramentinetako ikasleena.

Orain ogei ta bost urte dirala izan ziran gauzak, eta egin ziranak, gomutau ezkerok, asko aldatu garala esan bear. Eta gauza on asko galdu dituala Arratia'k ezin ukatu

* * *

GAUR ZER?—Eta gaur, ainbeste aurrerapen egin dogulakoan gagozenok, ete daukagu omenaldi obeagoa egiteko adorerik?

Zalantza apur bat ba daukagu orretan. Gaurkotu egin garala eta orduan baiño bide obean gagozela uste izaten dogu, baiña orduan ugari egoan zerbait falta jakula uste dot: Umorea ta poza.

Edozelan be, berrogei ta amargarren urte onetan zerbait egingo dala uste dogu. Aita Iruarizaga'ri zor dauksagu.

O. M.'ek



Bilbo'ko eta Gazteiz'ko gotzaiñak.

AZPEITIA'TAR JULENE (EUSKALZAINDIKOA)



Azpeitia' tar Julene sari bat jasotzen Peli Aldazabal'en omenaldian, Arrate'n.

Gaur, alkarrizketa onetan, Azpeitia tar Julene (euskaltzaiña) dogu gugaz, oso emakume jatorra, aberria ta euskeraren laguna, oso ospetsua euskal-munduan, beragana joan gara itaun batzuk egiteko ta guztiz pozik artu gaitu.

—Julene, nungoa zara?

—Zumaiarra nozu.

Noiztik zagoz Euskaltzaindian?

—Enaz gogoratzen une onetan, baña 40 bat urte bai. Garai aretan sariketa bat agertu zan, Ni Burgos-aldean nengoan zigortuta ta andik idatzi neban eta sariketea irabazi neban beste lekaide bategaz, orduan, izendatu ninduan euskaltzaindikoa.

—Aizu Julene, esan dozu Burgos-aldean zigortuta egon ziñala, zer dala ta?

«Educacion Nacional» Ministroaren Bilbo'ko Ordezkariek guzur galantak esan eban nire aurka. Esan eustan salaketa asko artzen ebezela, au dala ta, sei urte, sei illabete ta amabost egun emon nebazan Burgos'ko erri txiki batean, irolarik ez eukan erritxo batean «Anzo de Mena» izenekoa.

—Nundik sortu yatzun euskerarenganako maitetasuna?

—Beti izan dot maitetasun eta zaletasun ori, etxean, euskeraz baño ez genduan besterik entzuten, guraso maiteak euskeraz egiten eben beti, aitatik iru itz baño ez ekiazan erderaz itz orrek «hasta la mar» ziran.

—Zenbat liburu idatzi dozuz?

—«Irakurri maite», «Amandrien altzoan» eta «Zuentzat», irurak umetxoentzako, eskoletan irakurteko. Idatzi onek euskera-errikoian egiñak dira, neuk erabiltzen dodan euskeran.

Lenengo idaztia «Irakurri Maite» bizkaieraz dago, liburu onen eralgi edo gaitu guztiok Konde de Bilallonga Jaunak ordaindu eban.

Baña ba dozu beste zeozer argitaratzeko ezta?

—Bai, gaztetxoentzako beste liburu bat eginda daukat, laster argitaratzeko uste dot, egia esan idazti au itzulpen bat da.

Azkenengo idazti au, argitaratzeko daukazuna, zelako euskeraz argitaratuko dozu?

Beste guztiak lez, erri-euskeraz.

—Izparringietan idatzi dozu?

—Guda baño len Euzkadi egunerokoan idazten neban astean bein, umeentzako, «Euzkotar umien alde» izenburuagaz.

—Zergaitik zure idazlanak beti izan dira gaztetxoentzako?

—Erantzuna erreza dozu: Ni maistra nazalako, ta gañera umeak asko gustatzen yatazalako.

—Orain, gura ba dozu, itun bat egingo dogu ZER aldizkariaren irakurle guztiakaz, begira: Gertu zagoz emendik aurrera gure aldizkari ontarako zerbait idazteko?

—Bai orixe! Ta pozik egin be!

Eskerrikasko Julene ta gura dozun arte.

GURASOEN MAITETASUNA

AIZPA TXIKIA.—Nik aizpa bat nuan, Segovia'ko urian bizi zana «ingeniero» bide kanal edo erreten eta itxas-atetakoa, ni baiño gazteagoa eta alkar oso maite gifiana.

Urte artan, illabete bat bere alaba txikiarekin igarotzera jua ziran nere aita eta ama, «gure Mariatxo»n etxera (gure Mariatxo nere aizpa txikiarekin zana).

* *

SANTA LUZIA.—Segovia'ra jua da andik egun bira, Sta. Luzia eguna zana, nere gurasoak ezkonduetako eguna, eta aita etxian zanean (itxasgizona izanik, Sta. Luzien eguna eta beste santu ta santa askoren egunak, itxasoan igaro bear izaten zituan gure aita gizajoak), baiña etxean izan ezker, egun aundia izan oi genduan egun ura.

* *

AMA MAKAL.—Gure ama geroa, makal xamar jua zana Segovia'ra eta iñor ez giñan oroitu egun ura ain ospetsua zana.

Mere aitak eta amak bigarren etxe-oiñcan zuten beuren logela eta Sta. Luzia gabean, Errosario Santua arrazatu ta jua ziran biak lotara.

Urrengo goizean, itxartu zanean, nere aizpa Mariatxok kafea egin eta bandeja batean kafeesne bero-bero ederra igon zuan aiten eta amen logelara.

Tximist-argia pixtu zanean, ene ba da! bere logelan, «Aita! Zer? Nun da ama?» «Ez al dago ba bere nean?» «Ez maite, amarik ez dago emen iñon eta ondo ixilik joan da nora-nora !!!» «Ze ordu da ba, maite?» «Betiko ordua, zortzirak !!!»

* *

AMAREN BILLA.—Gure aita istanpetian jaiki ta jantzi zana, eta Mariatxo ta biak eskallera bera al zuen azkarren asi ere.

Loretokiko atera eldu ziran, atea erdi-itxian zegoen, eta gure amaren etxeko zapatillak atendoan.

Argia pixtuta begiratu zuten biak lorategiko ateraiño eta etxeko atetik kanpoko ateraiño zuzen-zuzen, gure amaren oin-txikitxoaren markak, bata bestearen atzetik.

Aitak esan zion gure Mariatxori itun-itun: «Ai maite, gure amak iges egin du». «Baiña nora aita?» «Nik al dakit ba, maite!»

* *

EGUTEGIARI BEGIRA.—«Nere senarrari deitu bearko diogu». «Bai, maite, erri onetako berri-rik guk ez dakigu».

Onetan, bat edon batek pausoen zaratatxoa, atea ireki eta or nun datorren gure ama poliki-poliki elur gainean.

Aitak: «Martina! nondik zatoz.

Gure Mariatxok: «Ama! Au bildurra artu degu aita eta biok!»

Amak arterio esklerosis erderaz izena duan gaitza zeukan eta oso itz gutxi egiten zuan, eta aitari ta «gure Mariatxori» begiratu, arin-arin esan zuan Mariatxo'k: Guazen sukaldera, sua pixtu det eta, kafe-esnea berotuta amak eta biok artu dezazuten. Sekula onclakorik !!!»

Sukaldean sartu ziran, gure amak, atien atzean ixkegita zegoan kalendarioari begiratu bigun bat egin, aita sorburuan poliki-poliki jo eta here eskubiko biatza kalendario-en gainean jarri eta aitari begiratu gozo bat bialdu zion.

Kalendarioak, amaren eskua zegoan lekuan, itz abek zeuzkan: 13 de diciembre Sta. Lucia.

* *

MAITETASUNA.—Nere aita, amari begituta negarrez asi zana sotinka. Eta nik Mariatxori eldu eta negarrez esan nion:

«Nola maite zuten alkar gure aitak eta amak !!!»

AZPEITIA'tar Julene (Eskauriatza'ren alarguna)

--EUSKALTZAINDI KOA



SORGIÑAK

ZERGAITIK SINISTU?—Gaurko egunean biotzeko gaisoaldia zer dan ba dakigu. Sasoizko gizon bateri, osasun betean egonik, biotzeko atake batek emoten badautso, bapatean lurrera jausten da.

Leenago onelako gauza bat sorgiñen gaiztakeria zala uste eben.

Guk gaur ba dakigu udan, egun bero, eguzki eder baten ondoren, sargori danean, trumoiak joten dauala.

Zerua bapatean lañotu eta euriaren ordeaz arria jausten da lañoetatik, soloko gari, maats eta igaliak alperrik galdurik.

Ori ere leen sorgiñak egiña zala uste eben.

Orain guk ba dakigu itxasoan aize gogorrek jotzen dauanean, olatuak anditu, urak arrotu eta arrantzaleak itoteko arrisku andian egoten dirala.

Ori ere leen sorginkeritzat artzen eben.

* * *

ZELAN JAKIN?—Nor zan sorgin, eta nor ez jatiteko, bide asko egozan, baiña nik iru errezenak eta ezagunenak bakarrik emen irakatsiko ditut.

Sorgin zalakoari zapi bategaz begiak estaldu, tapatu, eta orratz bategaz gorputzean xixkatu (pintxatu), eta orratzaren miñik ez ba'eban sentitzen, sorgiña zan, zalantzarik gabe.

Ezkerreko begira begiratu, eta begi-erdian «sapo-anka» antzeko zerbait ikusten jakon, sorgiña zan.

Sorgin-gaia, emakumea naiz gizona, pixu edo balantza batean pixatu, eta itxuraz emoten eban baiño pixu gitxiago ba eukan, ziur-ziur sorgiña zalako zan.

* * *

ITUREN ERRIAN.—Ara zer jazo zan 1525 urtean Naparroa'ko Ituren errian.

Erri ori, askoren ustez, sorgiñez beterik ei egoan.

Naparroako agintari nagusiak epaille edo juez bat bialdu eban ara sorgiñak arrapatu eta merezi eben zigorra emoteko.



Huarte'ko Anton zan juez jakintsu orren izena, eta soldadu-talde andi batekin errian agertu zan.

Erriko bizilagunak, amalau urtetik gorakoak erriko enparantzan edo plazan bildu zituan, eta zazpi urteko ume txiki bat artu eban testigutzat nortzuk ziran sorgiñak jakiteko.

Neska orrek Izarozko Gratziana eban izena.

Erriko enparantzan korroan jarri eta ume ori banan banan joan zan, baktxari ezkerreko begira begiratzen, ia «sapo-anka» nori ikusten eutson.

Azkenean 10 emakume aukeratu zituan sorgintzat eta gizon bi.

Gure epaille edo juez jakintsu onek ama biak preso eroan zituan Iruña'ra ango espetxean euren zigorra, kastigua artzeko, eta bai ederra artu ere.

EGITAMU EDO ESTRUKTURAK

JAKIN

Egitamuak ez litzakez izan bear gizonaren lokarriak izateko, baña tamalez., gaur egun orrela dala esan geinke.

Gure gizarteari begiratu ezker, argi ikusi geinke zelako ostopoak aurkitzen dituan titulu bako gizonak.

Gizona ez dogu onartzen bera danagaitik, bere argitasun edo jakintza gaitik, arek daukazan tituloakaitik baño.

Euskalerrian ez egoela ar ori sartuta uste genduan baña oker gengozan, itxura danez.

5 *

NEURRIA

«Aran» aldizkaria artzen dogu gure etxean, eta oraintzu an agertzen zan artikulua baten irakurri genduan «Olazar'tar Martin nor zan H'aren aurka egiteko».

Ez euskun salakuntza berak arritu, edonork itaundu geinke ori eta, zelan egoan oiñarrituta baño.

Idazlanean agertzen zan lez, Olazar'en tituloak jakin gura ebazan salatzaileak. Onak bai arritu ginduzala.

Nondik nora, Erri askatu baten (eta bat iñon izan ba-da Euskalerria izan da; ez Erri lez tamalez aspaldi ontan, baña bai bere semeen izakera, nortasun eta oituratan) gizonaren neurria, tituloak emoten dautse?

*

OIÑARRIAK

Ez dogu beti esan, Euskaldunak eta Euskaldunen egitamuak ain aberatsak ba-dira Erriak berak egiñak izan diralako dala, aren jakituria, betik gorantza urtendakoa dalako?

Ez zan oba izango idazlan a egin ebanak itaundu ba-eban Olazar'en eritxiak non egozan oiñarriturik?

Ez ete gagoz gure betiko egitamuak aldatuten, zer gagozan egiten ausnartu barik?

Olazar Jauna ezagutzen dogunok ba-dakigu aren euskera nondik datorren, bere jakintza egarria Erriko iturrietan aseturik.

ERRIAN

Eta gure ustez, euskaldun apal baten eritxia emonez, or dagoala untzia, Erri mallan sakondu bear dala, esan bearko dogu.

Ez dautso ba eskubiderik emongo Euskera arloan ez Olazar'i ez beste edonari, areik izan leikezan tituloak, Erriko seme izateak baño, ta aregaz bat eginda egoteak bere jakintza iturrietan sakonduz.

Ori bai izango dala titulurik aundiena.

Itxi daiguzan ba gure estrukturak orain arte izan diran lez danon onerako.

ERIoTZA - BIDEA

Oraintsu Mikel Zarate'k esan eban lez, beste era batera jokatzan ba-dogu, alperriko lana izango da gurea; Erriak jakintsuei jaramon egin barik, bere bidean jarraituko dau, ta zoritxarrez azken baten, indarrak bananduaz, gure izkuntzaren eriotzara joko dogu.

Ta Mikel Zarate aitatu dogun ezker, zerbait esango geunskio gure adiskide zar ari.

BIZKAIERA

Goratuago esan dogun idazlanean, beste eritxi batzuk be argitu zenduzan, ta euran artean, bat, gure biotza mindu ebana.

«Ez daust ardura, Bizkaiera galtzen ba-da, euskerak jarraitzen ba-dau.»

Gu bai Mikel adiskidea, gu arduratzen gaitu, eta ez gitxi.

Bizkaiera, euskeraren euskalki eder bat dan ezker, ta berengan eziak izan, gure ardura aztun bat bezela artzen dogu alegin guztiak egitea bere biziaren alde.

* *

ZEUREA UKATU BARIK

Nor gara gu, nor zara zu Mikel, nor da iñor, beste elburu nagusiagoaren baten izenean esateko, «ez nau txikiagoak arduratzen»?

Ez genduan irakurri zure esana baten, eta ez birritan, askotan baño, eta ezin dogu siñistu biotzez esan zendulala.

Lezama'ko semea, bere amamaren jakituria goraltzen ebana (batez be Erri-filosofia eukalako). Errizale zintzoa, ta bereak ez dautsola ardura?

Ekin batasunaren alde, emon zure urte onenak idazlari-tzan, artu dozun bideari jarraituz, baña zeurea ukatu barik.

Ludi guztiko izkuntzak daukez euran izkelkiak, eta gureak zergaitik ez? Esker txarreko semeak etc gara ba?

ATXUTEGI'TAR BITTOR

ARRATIA'ko .ALDIZKARIA

ZULAIABAR LANI311)E IKASTEGIA - ZEANURI (Ili,kaiai)

Aran



OMENALDIA

BEIZTEGI'TAR JUANITO'RI

GUDARI-LAGUNAK.—Bagil onen barruan eta bere adiskide ta gudari-lagun talde batek erata, omenaldia eskiñiko jako Juanito gure aspaldiko alderdikideari.

Juanito ez da oore-zale, baiña omenaldi onek esangura luzeak eta sakonak dakarguz: ez da gizon bateri bakarrik egiña, euskalduntasunari berari baiño.

Euskalduna beti izan da ei da «itzez laburra, baiña egitez luzea». Iñor olakorik aukeratzekotan, Juanito jatorku begien aurrera.

* * *

«AGUR» ALDIZKARIAN.—Ez goaz bere bizitzan, guda-aurrean, gudan eta guda-ostean egin-dakoak emen azaltzen.

Ederto azaldu ditu Aranbarria'k «Euzkadi» aldizkarian.

Baiña Eibar'tar onek bost urte luzetan egindako lana gitxik ezagutzen dau: berak bakar-bakarrik, AGUR euskerazko gure aldizkaria izan zana, aztertu, lanak banandu, toki egokian ipiñi eta iru bider (irarkolako okerrak) zuzentzen ebazan, ogibideari ta loari ordu asko kenduta.

Bein Ramon Galarza bion lagunak esan eustan: «Josu, le veo a Juanito cansado; os cargais el AGUR o os cargais a Juanito».

* * *

SABIN'EN BIDEAN.—Olantxe ekin eutson gure gizonak euskerearen aldeko lanari eta batez be Arana Goiri ta berak sortutako Alderdi Jeltzalearen aldeko burrukeari.

Lan gitxiago egiñeko gizonak ikusten doguz gaur omenduta eta ardura aundiko lekuetan. Guk ez dogu aiztuta ta baztertuta itzi bearco olako langille zintzoa ta sendoa. Ondo irabazia dau gudan eta bakean egiteko dan omenaldi au. Lankideak bear diranean, erantzupenaren ziurtusana emon dauskuen gizonak ez dira aiztu bearco.

* * *

LENENGO OINKADEA.—Juanito lako gizonak, euren egunetan lan asko egin dabena eta gaur be ixillean lanean diarduenak, asko dira, argitara atera bear doguz.

Omenaldi au lenengo oinkadea izan leiteke.

Baiña ez agertu eta gero len lez ixiltasunean izteko. Artu al dabezan lanak eta ardurak eurei ezarteko baiño.

* * *

LENGOAK ETA BARRIAK.—Langille barriak bear-berrekoak dira gure jokabideetan, baiña ondo aukeratuak eta erantzupen ziurra emoteko lakoan. Olaskoetan egin geinkezan utsak ondoren samiñak eta garratzak ekarten ditue.

Barrien ondoan ziurtasun ori ainbeste urtetan emon dabena ipintea zurtasunaren lenengo mai-ilea da. Urteak irakasten dabena, liburuetan ez da ikasten.

Ez ete da au omenaldi onen esangurarik aundiena?

Urrengo ZER'en zenbakian agertu al izango doguz askoren aritxiak.

A. J.

KILT-KILT

UMEAK ABEDETZEAN EUSKALDUNAK
EGITEN DABEN.

LAN EDER-EDERRA

EUSKERAZ UMEENTZAT 1.º ALDIZKARIA

*

LAGUNTZAILLEAK BEAR DITUGU:

- Marralariak
- Margolariak
- Eroaleak
- Zuzentzailleak
- Esku-langilleak

ETA ABAR...

LAGUNDU HEN, EZELAKO ASTIRIK BA DAUKAZU

Deitu: Kili-kili'ra, 6-16-60-49 edo

Euskerazaleak'era: 4-23-53-22

BEAR-BEAR ZAITUGU. ZURE LAGUNTZA
POZIK ARTUKO DOGU.

TARTALO

EIZTARIAK

Eiztari ziran Atxarte'ko bizilagunak. Eta bertoko anai bi mendi gora abiatu ziran, bein, eizerako asmoan.

Basoan ebiltzela, odeiak jo, eta sekulako ekaitza sortu zan. Eta zelaiz-zelai abiatu ziran mutillak, laisterka batean, aterpe-billa. Koba aundi bat ikusi eben an inguruan, eta bertara sartu ziran, iñungoen pozik.

Laister azaldu zan artalde bat, eta barrura sartu ziran aren ardi guztiak. Eta euron atzetik, artzainña ere: begi bakarreko basajaun ikaragarria zan.

TARTALO

Tartalo eukan izena basajaun ikaragarriak. Eta barrura sartu bezain laister, arri aundi batez itxi eban kobako atea. Eta Atxarte'ko mutillak ikusi ebazenean:

—I gaurko, eta biariko beste ori-esan ei eutsen gizon ikaratuai.

Artu, bada, burruntzi aundi bat, eta tripatik sartu eutson lenengo mutillari; sutan erre gero, ta krisk-krask oso-osorik jan eban. Lurrean zerraldo etzun, eta lo-korronka jarri ei zan.

Beste mutillak ori ikusi, ta inguruko burruntzia artu eban; sutan goritu gero, ta Tartalo'ri begian sartu eutson.

ARDI - NARRUZ

Tartalo berealako baten jeiki, eta Atxarte'ko mutillaren brilla asi zen itxupustuan eta orru ta marru. Alperrik, baiña! Ardi-narru artean gordeirik egoan, orduko, geure mutilla.

Kobako ate erdian parau zan, orduan, Tartalo anak zabal-zabalik. Ardiak aren istarpetik kanpora joiazen, eta Tartalo'k arein lepo gaineko ulea ikututen eban.

Burutapen au etorri yakon, orduan, mutillari,

Tartalo'k ezagutu ez egian: bera be ardi-narruz jantzita igarotzea.

Ala jantzi zan, ba, eta basajaunaren istarpetik igaro zanean, ez eban Tartalo'k nor zan igarri, le-pogaiñean igurtzi ta igurtzi ibilliarren.

TARTALO'REN ERAZTUNA

Kobatik urten, lepoko ardi-marrua kendu eta laisterka asi zen mutil zoriontsua. Tartalo'ren eraztuna berbetan ekiana zan, gero; eta olan esan eutson jau-beari:

—Tartalo basajaun..., or joak mutilla.

Tartalo'k, orduan, bere eraztuna jaurtiki, eta mutillari atzamar txikarreen sartu eutson Eta eraztun orrek ixildu bagerik:

—Tartalo basajaun..., emen ñagok, emen ñagok...

Eta Tartalo, mutillaren atzetik asi zan laisterka bizian. Eta mutilla ekin eta ekin eraztun salatari a atzamarretik kendu nairik. Ezin baiña, iñundik ere. Aizto batez atzamarra ebaki, eta aurreko osin batera jaurti eban bere eraztun ta guzti.

Eta eraztunak, barriro ere:

—Tartalo basajaun..., emen ñagok, emen ñagok...

TARTALO OSINERA

Eta Tartalo aurrera ta aurrera, ziur, eraztunaren abots zolitara. Aurrera egin; osiñera urreratu; eta plaut zapar egiñaz, bertan ito egin zan.

Mutilla ori ikusi ebanean, eraztuna jaso, samatik dindilizka ipiñi, eta kobako ardietara abiatu zan arinka.

Ardiak berealakoan, ezagutu eben eraztunaren betiko soiñua, eta artzain barriaren atzetik urten ziran larrera.

Eta alan zabaldu ei zan munduan mendietako artzaintza.

ESTONBA'tar MANUEL'ek

GIZANDIAK

AITA ZUMARRAGA

MEXIKO'KO LEN-GOTZAIN. Valladolid'ko lurraldean dagoan Abrojo erritxuko konbentuan emon eban Karlos I errege ospetsuak 1527 garreneko Aste santua.

Durango'ko seme aita Zumarraga zan frantzizkotarren konbentu artako jagole-aba edo buru; eta berak zuzendu ebazan bertoko elizkizunak, eta berak egin elizkizunetako itzaldiak be.

Erbat zoratuta geratu zan erregea, praile aren jakituri, eratasun eta eraspina ikusirik; eta zelanbaiteko eskupekoa emon eutson, esker onez.

Ez ziran bat ere esarre geratu inguruko beartsuak, arein eskuetara joan bait-ziran erregeren diru guztiok.

Beste erromes ospetsu bat etorri zan Abrojo'ko konbentura, andik illabete batzuetara. Aita Santu ta erregeren orde zitorren zorioneko barri bategaz: Mexiko, lurralde aundi ta aberats aren gotzain izendatu ebela aita Zumarraga.

AGINTARIAKIN BURRUKAN.--Agintari gogor eta zekenak aurkitu ebazan aita Zumarraga'k Mexiko'ko lurraldean.

Bertoko inditarrai lurrak kendu, eta euren izen eta gizenean bear egiñerazten eutsen gaixoi, astoen moduan ez kristau eta ez gizon.

Orrelako ta beste astakeri gogorrakoak egiten ebezela agintarioik, eta eskomuniatu egin ebazan aita Zumarraga'k. Eta España'ko erregeri adierezo eutson artutako erabaki.

Gizabide ta kristaubidez jantzitako beste agintariak ipiñi ebazan, urren, España'ko erregeak. Eta sekulako lan izugarria egin eban arein babesean eta arein laguntzaz Mexiko'ko inditarren alde aita Zumarraga'k.

INDITARREN ALDE.—Ez kristau ez gizon, erabilli ebezen inditar gaixook ango lenengo agintari dollorak. Ostera,

barriz, aita Zumarraga'k, Kristaubidez eta gizabidez azi ta ezi ebazan inguruko inditarrak.

Praile - lconbentuak eraiki ebazan erri azitxu gurtzietan; eta eskola zabalak, konbentu bakotxaren ondoan. Errietan, eskolak; eta ikastetxe nagusi edo unibertsitatea, uriburuan.

Ikastetxe nagusi orretan eskolatzen ziran inditarren «caciue» edo buruzagien semeak. Euren izkuntza eta kulturaren lenengo; eta Gaztelako izkuntza ta gogolantzean, urrengo.

Irarkola edo inprenta bat ere eroan eban, orretarako; emendik-ara eroandako lenengo irarkola zan. An argitaratu ebazan ikastetxerako bear ziran liburuak; an azaldu be inditarren izkuntzan idatzitako lenengo liburuak.

Ez ori bakarrik. Emengo azi berezi, eta sagar, madari, okaran eta mertxika landare ederrak be eroan ebazan, ango lur gizenarcn aberasgarri.

GUADALUPE'KO AMA. Juan Diego deitutako inditarrari Andra Mari agertu yakon Tapeyak izeneko mendi tontorrean; eta auxe eutson: zoaz aita Zumarraga gana, eta esan egiozu ikusi dozuna; eta beste au be esan: jaso dagilada emen eliza bat nere izenean, emendik bedeinkatu gura dodala-ta Mexiko'ko erria.

Ezaugarri bat eskatu eutson aita Zumarraga'k Juan Diego'ri. Eta auxe emon autson Andra Mari'k inditarrari: zoaz —esan eutson— Tapetay tontorrera; moztu ta artu an dagozan larrosak, eta eroan egiozuz gotzainñari zeure kapusai baturik.

Artu eban gotzainñak inditarraren kapusai; zabaldu eban, astiro-astiro; eta auxe arrigarria! Andra Mari'ren irudi maitagarria egoan kapusai latzen ondo baiño obeto marrazturik.

Juan Diego inditarraren kapusai latzako irudi ber-berau dago Tapeyat-elizako aldare-aurrean. Guadalupe'ko Andra Mari deitzen deutso Mexiko'ko erriak, eta bere zaindari maitetzat dauko.

Orrelan ordaindu eutsozan zeruko Amak aita Zumarraga'ri bere alde 330 urtetan Mexiko'n eroan eta egin ebazan neke ta lanak.

URKIOLA'K

LA QUADRA VILLALON MONTAÑO

EUSKAL - IDAZLE.—Noz edo noz eldu jako idazle oni plazara agertzeko ordua.

Nok esango leuke abizen orreik dituen euskal-idazle izan dogunik?

La Quadra, Montaño, Vi lalem abizenak euki eta euskaldun eta euskal-idazle, gaiñera?

Ez da errez siñistekoa.

Baiña egia da: euskalduna eta euskal-idazlea da, eta Bilboko semea.

Bilbotar izan diran euskal-idazleen izendegia geitzera dator, gaur, Nikolas de La Quadra Villalon Montaño Errekakoetxea.

Tira! Ez da dana erdal-usaiñekoa bere.

Errekakoetxe beintzat oso etxeko egiten jaku.

Baiña berak, gauza au nabarmengarriago egitearren edo, azkenengo abizen ori ixildu egiten dau beti eta beste irurak erreskadan jarten ditu.

Aitarenak alde batetik: de La Quadra Montaño, eta amarena bestetik: Villalon.

* *

BILBOTARRA.—Bilbotarra dogu bera, eta Bilbon, Areatza inguruan, San Nikolas Parrokiaren mugabarruan jaioa, 1713-III-24-n.

Aita, Nikolas Antonio, Somorrostro erri erdaldunduko seme izan eban; ama, Manuela Villalon, Bilboko alabea.

Aitaita-amamak, aitaren aldetik, Migel eta Zezilia, Somorrostrokoak biak; amaren aldetik, Manuel, Bilboko eta Maria, Iurrekoa.

Agiri danez, odolik geiena Somorrostrok emon deutso.

Bateoan, aitaren eta amaren izenak, biak artu zituen: Nikolas Manuel.

* *
w

FRANTZISKOTAR ETA SERMOLARI.—Ez dakigu noz, ez dakigu non, baiña frantziskotarra egin eta izan zan Bilbo'tar au, gero Aita J. Mateo Zabala izango zan lez.

Bear bada, gaztetxorik fraidetu zan.

Bilbok errekearen andiko aldetik, aurrez aur, dingilizko zubia bitarte, frantziskotarren etxe ederra eukan, ikastetxe ospetsua, «Colegio Imperial» izen andikoa.

Ango prailleak ez zituen ez-ezagun gure Nikolas Manuel gazteak, eta ezagutze orretatik sortuko jakon prailletako gogoia.

Beste aztarren eta argibiderik ez dogun bitartean, geiago ezingo dogu esan.

Azkenengo urteetan, irurogeta amar urtetik gora ebillela, Bermeon aurkitzen zala besterik ez dakigu, Jumea eskuan ebala, euskerazko liburu bi idazten eta argitaratzeko asmotan.

Artean, Bizkaia osoa atakatuta eukala dirudi, sermoegiñan eta olan.

Auxe ateraten da bere liburu bati ezarri eutsazan eraskin eta argibide batzuetatik.

Orregatik, Bizkaiko euskerea ondo ezagutzen ebala agiri dau, erri batetik besterako ez-bardintasunik geienakaz, ezagutu bere.

EUSKAL - IDAZLE.—Liburu bi itxi euskuzala esan dot.

Bata *Dotrina* edo *Kristifiaubaren jakinbidea* da; bestea, ondo ilten laguntzekoa.

Ez bata ez bastea ez dira iñongo erderatik euskeratuak, biak berak ikasi eta ekianetik atondu eta moldatuak baiño.

Bermeo, Mundaka eta inguruetako erriak gogoan zituela egin ditu, Bizkaiko euskararik zabalena eta erabiliñean.

Liburu biokaz, bein errikerri erri sermolari ibilteko gauza ez zala gelditu zanean, Bizkaiko kristañau zintzoai laguntzen jarraitu gura izan dau.

Baiña... liburuak argitaratzea ez zan egitea baixen errez.

EZIN ARGITARATU.—«Bai, baiña» andi bat, era-gozpen gogorra sortzen jake praillearen asmoai.

Madrilgo agintariak gero ta gogorago jarten dira eta euskerazko liburuentzat ez dabe baimenik emon nai.

Joan da, atzean gelditu da Mendiburu eta Kardaberaz-en egunik onenetako crreztasuna.

Kardaberazi berari be ez eutsen itxi bere azkenengo liburu bat ateraten, gure Patroi andiaren bizitzea.

Irurogei bat urte geroago, Gerriko sermolariak ez eban euki bere liburuak ateraterik.

Baimena emoteko, Madrildik Erregearen albotikoak erderazko itzulpena eskatzen eutsoen.

Gure frantziskotarrari jazoia orduko goietako agintarien gogoia erakusteko berebizikoa da.

Bizkaitar bi agertu jakozan diru-laguntza emoteko.

Madril-aldera be jo eban baimen-eske.

Eta zer da erantzuna? Berak diñosku: «Eskatzea eta ukatzea bat izango zala».

Zetako euskerazko libururk? Kristiñau - dotriñen bategaz naiko eban, eta ori ba-euken.

EGUN OBEEN ZAIN.—Orraitio, Aita la Quadra onen gogoia cz da kikilduko.

Liburua argitaratuta ikusi barik ilgo zan, baiña ez ixaropena osoan galdurik, egun obeen argitxo bat susmau barik.

Au be berak diñosku: «Munduko gauzak cz dagoz beti batean, eta baimena lortzeko egun oberik etorri leiteke. Bien bitartean, ni ilda gero liburu au eskuratu dagianak ez begi eskutik galdu, neure irurogeta amabigarren urtean ainbeste neke emon deustana da-ta».

EZ DA GALDU.—Laster dira berreun urte Aita la Quadrak bere euskal-lana amaitu ebala.

Liburu bioi ez jake argitara urtetako ordutik eldu baiña z dira galdu.

Or diraue, gauza bi salatzen: euskalzale baten zintzo-asuna eta euskereak orduan zituen arerioen gogorkeria.

Or dagoz frantziskotar onen lan biok: bata, *Jakinbideak*, 124 orrialde ditu, eta besteak 148. Biak eskuz letra argi derrez idatzita.

Besterik ezean, egillearen itxaropen guztiak bete ez 3adira be, beioakio gure gomutatxo eta aitamen onen omeldia idazle ixil eta itxaropentsu oni.

Euskal-idazle izan diran antziñako bilbotarren artean dira bakarrik gelditzen Mikoleta abadea eta Aita Zabala.

Lagun bat geiago dabe.

Emen dator Aita Nikolas Manuel de La Quadra Villalon Montaño Errekakoetxea, bataren eta bestearen arteko rtsunea beteten.

L. AKESOLO

EUSKERAZALEAK

ERRIA

DANOK

EGITEN

DOGU

GEU ERRIA.—Erria danok osotuten dogu, baiña erri irakurlea, pelotazalea, langillea edo-ta beste zaletasun naiz gaien bateri gagokiozanean, bestetariko zaletasunik, zeregindunik eta erririk bizi dalakoa adierazoten dogu.

Baiña oyu ta karraxien artean, *Erria zurekin*, eta ZUREKIN orretan Erria osorik artzea ta sartzea, guzur gordiña dogu, nik uste.

* * *

ZER DA

Maskorduna? Azur-antzeko azal gogorra daukan pistia.

Maskulua? Marraskulua edo marraskillua.

Zornea? Materia, odol galdua.

Kutsadurea? Aizearen edo uraren zikinketa berezia.

Arrorioa? Arri-artetik eteraten dan orioa, petroleo.

Iñozo? Adar-jotzaille, makal, txiki, buru-gogor.

Tutulua? Eroa, ketoa, papaua, kirtena.

SARE BAKARREAN.—Gu, ezkertarra naiz eskumatarra, ZUREKIN esatea eta, noren edo-ta zeintzuen egiñakaz bat gatozan ez iragartzea, nik neure aldetik begi onez ikusten ez dotan zera da gizontasuna.

ZUREKINGaz diranak eta ez diranak, gagozanok eta ez gagozanok sare batean sartzeaz, iruzurkeria ta azerikeria egin daroagu.

Guzurretan gabiltz.

* * *

«EUSKAL PRENTSA GEU GARA».-diñauskuenak be, itsukerietan dabilkiguz, ala iñozo (*), tutulutzat ete gaukiez?

GEU GARA EUSKAL PRENTSA esakerak ba, beste euskal PRENTSarik ez dalakoa adierazoten dauskula uste dot.

GEU GARA'tik landa, sagar eta mats ardu biurtzeko euskal PRENTSA'rik izango danik, nire aldetik ezin dot baieztu ez ezeztu, baiña aldizkariak, PRENTSA ez diranak: GOIZ-ARGI, KAR-MEL, HERRIA, ZER au eta besterik, ona emen euskal aldizkariak (prentsak), oillarkeri ta itz gordiñik gabeak.

LANDAJUELA'tar A'k

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

***Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-
goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan
aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baiet-
za agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezar-
teko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo dogu-
zan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Biz-
kai'ko Aurrezki-Kutzak guztiontzat etorki-
zun ederrago bat egitea gura dauala
adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear do-
gu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.

